



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko maiatzaren 9a

63. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E S A I L A:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehentasuna eman diezaion Jurramendiko Erribera eta Viana urez hornitzeko proiektua burutzeari. Gregorio Galilea Arazuri jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lanbide arteko Gutxieneko Soldatetik behe-rako pentsio guztiak osa ditzan. Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da onar dezan Nafarroako Arartekoaren gomendioa, atzerriko edozein hizkuntzak euskarak baino balorazio handiagorik ez izatekoa Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoan sartzeko deialdian. Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (6. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten baitu udal jabetzakoak diren Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen finantzaketaren murrizketa. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak zeharo salatu eta arbuiatzen baititu indarkeria matxistako kasuak. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

#### F S A I L A:

##### **Galderak:**

- Galdera, jakitekoa zer arrazoi dituen Gizarte Politiketako Departamentuak Gizarteratze-errenta jasotzean iruzur egitearen kasu-kopurua 2014an igoko dela ondorioztatzeko, Patxi Leuza García jaunak egin (9. or.).
- Galdera, kirol klubei emandako dirulaguntzak argitaratzeari eta Kirolaren Mahaian lortutako konklusioen betetze-mailari buruzkoa, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egin (9. or.).
- Galdera, Lizarrako Santo Domingo zahar-etxean dauden plaza libreei buruzkoa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egin (10. or.).
- Galdera, mamografiak historia kliniko informatizatuari gehitzeari buruzkoa, Enrique Martín de Marcos jaunak egin (11. or.).

- Galdera, *Vanity Fair* aldizkariak argitaratu duen Nafarroako lehendakariaren elkarrizketari buruzkoa, José Miguel Nuin Moreno jaunak egina (12. or.).
- Galdera, N-121-A errepidean (Iruña-Behobia) lizitazioara atera den Belateko eta Almandozko tunelak bikoizteko aukeren azterlanari buruzkoa, Eloy Villanueva Cruz jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Sozietateen gaineko zerga aldatzeko proposatutako neurri zehatzei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (13. or.).
- Galdera, «*after-care*» direlako bisitei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (14. or.).
- Galdera, inbertsio-proiektuen abaletarako deialdiaren ildo nagusiei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (14. or.).
- Galdera, foru intereseko proiektuei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (15. or.).
- Galdera, industrialdeetan ezartzeko eta kokagune egokia aurkitzeko laguntza jaso duten enpresei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (16. or.).
- Galdera, nekazaritzako produktuen balio erantsia handitzeko laguntzei buruzko programa definitzeko eta garatzeko kronogramari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (17. or.).
- Galdera, enpresa-inbertsiorako 2014-2020 eperako laguntzen mapa definitzeko eta garatzeko kronogramari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (17. or.).
- Galdera, industriaren trakzio-gaitasunaren gaineko azterlanaren konklusio orokorreari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (18. or.).
- Galdera, soldatepekorik gabeko enpresen kopuruaren bilakaera beste eskualde batzuetan baino okerragoa suertatu izanaren arrazoiari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (19. or.).
- Galdera, industria berrabiarazteko planaren kronogramari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (20. or.).
- Galdera, museoak asteburuetan ireki ahal izateko garatu diren jarduketei buruzkoa, Amaya Zarranz Errea andreak egina (20. or.).
- Galdera, gaur egun PFEZaren zerga-oinarriari aplikatzen diren murrizketak kuota osoan aplikatu beharreko kenkari bihurtzeak diru-bilketan izan lezakeen eraginaren gaineko txostenari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (21. or.).
- Galdera, udal eskumenetik kanpo gelditzen diren eta gaur egun toki esparruan ematen ari diren gizarte zerbitzuei dagokienez Nafarroako Gobernuak duen asmoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Iruñeko Udalak Nafarroako Gobernuari Arrosadian lagatako etxebizitza komunitarioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, ikastetxe publikoetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailaren 2012/2013 ikasturteko kanpo ebaluazioak izandako emaitzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Legasako Arcelor-Mittal enpresaren lurretan jarduera ekonomikoen eremu bat eraikitzearen bidegarritasun ekonomikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, zenbait ikastetxetan Lehen Hezkuntzako 4. mailaren 2012/2013 ikasturteko kanpo ebaluazioak izandako emaitzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, ikastetxe publikoetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailaren 2012/2013 ikasturteko kanpo ebaluazioak izandako emaitzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako 2014-2015 ikasturterako aurrematrikulazio kanpainari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehentasuna eman diezaion Jurramendiko Erribera eta Viana urez hornitzeko proiektua burutzeari.**

*GREGORIO GALILEA ARAZURI JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Gregorio Galilea Arazuri jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lehentasuna eman diezaion Jurramendiko Erribera eta Viana urez hornitzeko proiektua burutzeari.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Sustapen Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Gregorio Galilea Arazurik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, kasuko Batzordean eztabaidatzeko.

Osasunaren Mundu Erakundearen eta Europar Batasunaren arabera, edateko ura da pertsona batek egunero, bere bizitza osoan zehar, bere osasuna arriskuan jarri gabe edan dezakeena.

Hori dela-eta, edateko ura da munduan gehien zaindutako baliabidea. Etxeetara heltzen denean, erabat fidagarria da, osasun-agintariek ezarritako kontrol guztiak zorrotz gainditu dituelako.

Uraren ezaugarri horiek Estellerriko herri guztietan betetzen direla bermatze aldera, 30,2 milioi euroko aurrekontua duen proiektu bat sustatu du Jurramendiko Mankomunitateak, Nafarroako Gobernuari aurkeztutakoa.

Jarduketak helburu du eskualde horretan ur hornidura hobetzea, bai kantitateari bai kalitateari dagokienez; izan ere, eskualde horretako egungo sarearen ahalmena egungo nahiz etorkizuneko beharrezan oso azpitik dago. Halatan, Estellerriko eskualdeko udal guztien garapen ekonomikoan lagundu nahi da, hala industriaren nola turismoaren eta aisia-jardueren esparruetatik.

Proiektu hori oso garrantzitsua dela uste dugulako, gure parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehentasuna eman diezaion Jurramendiko Erribera eta Viana urez hornitzeko proiektua burutzeari, halako moduan non bertako herri guztiek behar beste ur eta kalitatezkoa izan baitute.

Iruñean, 2014ko apirilaren 25ean

Foru parlamentaria: Gregorio Galilea Arazuri

## Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lanbide arteko Gutxieneko Soldatetik beherako pentsio guztiak osa ditzan.

### TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Lanbide arteko Gutxieneko Soldatetik beherako pentsio guztiak osa ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko kide Txema Mauleón Echeverría jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lanbide arteko Gutxieneko Soldatetik beherako pentsio guztiak osa ditzan.

Zioen azalpena

Gizarte Politiketako kontseilariak honako informazio hau eman zigun, Lanbide arteko Gutxieneko Soldatetik beherako pentsioei buruzko informazioa eskatu genionean:

– Lanbide arteko Gutxieneko Soldatetik beherako edozein pentsio-mota duten pertsonen kopuruari buruzko informazioa ez dagoela sistematizata –pentsio-moten arabera, modu agregatuan landu ahal izateko– Nafarroako Tributu Ogasunaren erregistroetan.

– Aurreko puntuan adierazitakoa kontuan hartuta, Nafarroako Tributu Ogasunetik ezin dela jakin Nafarroako Gobernuari zer kostu ekarriko liokeen Lanbide arteko Gutxieneko Soldatetik beherako

alargun-pentsioak dituztenek kobratzen dutenaren gisako osagarri bat paratzeak, Lanbide arteko Gutxieneko Soldatetik beherako edozein pentsio-mota duten pentsiodun guztientzat halakorik ezarri gero.

Gainera, aipatu behar da Lanbide arteko Gutxieneko Soldatetik beherako alargun-pentsioaren osagarriarengatik PFEZeko kenkaria kalkulatzeko (PFEZaren gaineko Foru Legearen Testu Bateginaren 68. artikulua eta 127/2003 Foru Dekretua, kenkariak alde aurretik ordaintzeko prozedura arautzen duena) Nafarroako Zerga Ogasunak baduela “190” ereduan sartzen den informazioa, gehi beharrezkoa den informazio osagarria, xede horrekin espresuki eskatzen diena Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalari eta alarguntza-pentsioak ordaintzeko eskumena duten gainerako entitateei.

Nafarroako Gobernuak alargun-pentsioetarako osagarrian izandako gastua, ezarri zenetik orain arte, eta 2014ko aurreikuspena, ondotik datorren koadroan agertzen dira.

#### Alarguntza-osagarriak

Urtea	Zenbatekoa
2003	1.279.380,48
2004	11.430.562,77.
2005	3.562.145,57
2006	1.043.152,54
2007	8.902.359,57
2008	7.607.094,79
2009	7.335.541,14
2010	5.526.786,54
2011	3.936.683,97
2012	1.579.694,74
2013	1.753.792,19
2014rako estimazioa	1.534.979,16

Alargun-pentsioetarako osagarriarengatik PFEZeko kenkariak, osagarria ezarri zenetik orain arte, eta 2014rako aurreikuspena, ondotik datorren koadroan agertzen dira.

PFEZeko kenkaria, alargun-pentsioen osagarria dela-eta		
ALDEZ AURRETIK Aitorpenetan APLIKATUTAKO zenbatekoa		
ordaindutako zenbatekoa		
2003. urtea	2003a <i>2003an aurkeztutako aitorpenak</i>	Indarrean ez daudenak
2004a	PFEZ/2003 <i>2004an aurkeztutako aitorpenak</i>	404.573,75
2005a	PFEZ/2004 <i>2005ean aurkeztutako aitorpenak</i>	558.797,00
2006a	PFEZ/2005 <i>2006an aurkeztutako aitorpenak</i>	667.635,53
2007a	PFEZ/2006 <i>2007an aurkeztutako aitorpenak</i>	314.510,91
2008a	PFEZ/2007 <i>2008an aurkeztutako aitorpenak</i>	2.444.980,34
2009a	PFEZ/2008 <i>2009an aurkeztutako aitorpenak</i>	2.346.364,72
2010a	PFEZ/2009 <i>2010ean aurkeztutako aitorpenak</i>	2.540.109,88
2011	PFEZ/2010 <i>2011n aurkeztutako aitorpenak</i>	2.140.626,53
2012a	PFEZ/2011 <i>2012an aurkeztutako aitorpenak</i>	1.650.326,35
2013. urtea	PFEZ/2012 <i>2013an aurkeztutako aitorpenak</i>	973.008,05
2014ko estimazioa	PFEZ/2013 <i>2014an aurkeztuko diren aitorpenak</i>	1.089.843,20

2004. urtetik gaur egunera arte ikus daitekeen, alargun-pentsioak Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura Lanbide arteko Gutxieneko Soldataraino osatzeak askoz gastu txikiagoa ekartzen du gaur egun, batez ere gutxieneko pentsioak igo direlako eta Lanbide arteko Gutxieneko Soldata hainbat aldiz izoztu delako.

Gainera, gaur egun alargun-pentsioez gain badaude bestelako pentsio batzuk LGS baino txikiagoak direnak, baina, ikusi dugunez, Nafarroako Gobernuak ez daki zer zenbatekoa duten ezta funts publikoei zer kostu ekarriko liekeen ere Nafarroak LGS baino txikiagoa den pentsio oro zenbateko horretaraino osatzeak.

Gure ustez, bidezkoa da osasun edo adin kon-  
tuak direla-eta lanean sartzeko egoeran ez dauden guztiek, eta ez bakarrik alargun-pentsioak jasotzen dituztenek, kobratzea LGSren pareko gutxieneko zenbateko bat, pentsio gisa, eta, horrenbestez, alargun-pentsioen gaur eguneko osagarria hedatzea LGStik beherako pentsioa duten guztiei.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

1. Nafarroako Gobernua premiatzea azter dezan zenbat diren Nafarroan LGStik beherako pentsioa duten pertsonak eta zer kostu ekarriko lukeen pentsio horiek Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura LGSrekin parekatzea, gaur egun alargun-pentsioekin egiten den bezala.

2. Nafarroako Gobernua premiatzea foru lege proiektu bat igor dezan, Lanbide arteko Gutxieneko Soldatetik beherako pentsioak osatzeari buruzkoa, horrela gaurko alargun-pentsioen osagarria LGStik beherako pentsioa duten pertsona guztiei hedatzeko.

3. Foru Lege proiektu horrekin batera plan bat egon dadila, osagarri hori arian-arian aplikatzeko horren xede izan daitezkeen pertsonen, 1. puntuaren eskatzen den azterlanean ondorioztatzen diren kostuen eta hura jasotzeko ahalmenaren arabera.

Iruñean, 2014ko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da onar dezan Nafarroako Arartekoaren gomendioa, atzerriko edozein hizkuntzak euskarak baino balorazio handiagorik ez izatekoa Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoan sartzeko deialdietan.**

### *BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita onar dezan Nafarroako Arartekoaren gomendioa, atzerriko edozein hizkuntzak euskarak baino balorazio handiagorik ez izatekoa Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoan sartzeko deialdietan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 197. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Apirilaren 16an Parlamentu honetako Foru Araubideko Batzordean agerraldia egin zuen Nafarroako Ararteko Javier Enériz jaunak, 2013ko abenduaren 27ko gomendioa azaltzeko. Gomendioa zen ogasuneko teknikari eta ogasuneko kudeatzaile eta ikertzaile laguntzaile izateko lanpostuetarako deialdietan ingelesa baloratzeari eta euskara ez baloratzeari buruzkoa.

Aipatu deialdiak 2013ko azaroaren 18ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, eta haietan baloratu egiten da izangaiak ingelesa jakitearen balioa, ingeles-jakintza horren arabera puntuazio zehatza emanez. Aitzitik, euskaraz jakiteari ez zaio baliorik ematen.

Kontuan hartuz euskararen erabilera normal eta ofiziala arautzeko legezko araubidea, eta hura betetzea administrazio publikoen ardura dela, argi

dirudi ezen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak izapidetzen dituen funtzio publikoan sartzeko deialdietan ezin dela okerrago baloratu euskarazko gaitasuna, bertako hizkuntza eta hein batean hizkuntza koofiziala baita, atzerriko hizkuntza bateko gaitasuna baino, ez Nafarroakoa ez bertan koofiziala ez dena.

Tratu gutxiesgarria ez izateko jarraibide hori bete behar da, edozein dela ere deialdian ezartzen den hautaketa modua (oposizioa edo oposizio-lehiaketa). Modu hori deialdia egiten duen administrazio publikoaren eta lanpostuaren eginkizunen izaeraren arabera da.

Arartekoak honako ideia hau defendatu zuen: ezin dela sustatu atzerriko hizkuntza bat, oro har, eta aldi berean "ahaztu" bertakoa den bat, euskara hain zuzen. Ideia horren alde Nafarroako Auzitegi Nagusiaren 1113/2004 epaia gogorarazi zuen. Epaia horrek dioenez euskarak baditu izaera jakin bat eta babes maila bat, atzerriko hizkuntzek ez dituztenak, eta horren ondorioz desegokia da elkarrekin hartzea alderaketa-unitate heterogeneoak, uniforme bihurtuz legegintzaren ikuspegitik ezberdin dena.

Hori guztia kontuan hartuta, behean sinatzen dugun parlamentu-taldeok ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua premiatzen du Nafarroako Arartekoaren gomendioa onar dezan eta, horrenbestez, behar diren neurriak har ditzan, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan edo haren erakunde publikoetan sartzeko deialdietan ingelesa edo atzerriko beste edozein hizkuntza jakiteak ez dezan izan euskara jakiteak baino balio handiagorik, euskara Nafarroako hizkuntza eta hein batean koofiziala dela kontuan hartuz, salbu eta justifikatutako lanpostu zehatz batzuetan, beste herrialdeetako herritarrekin lotura berezia izateagatik ezinbestekoa denean atzerriko dena delako hizkuntza jakitea lanpostuan aritzeko.

Iruñean, 2014ko apirilaren 29an

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso, Nekane Pérez Irazabal eta Marisa de Simón Caballero

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten baitu udal jabetzakoak diren Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen finantzaketaren murrizketa.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2014ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa dela Nafarroako Gobernuak udal bakoitzari dagokion zenbatekoaren ehuneko ehunen ordainketa aurreikus eta konprometi dezan 0tik 3 urtera bitarteko ikastetxeen finantzaketari begira udalekin sinatuko den hitzarmenean.

2. Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du Nafarroako Gobernuak udal jabetzako Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen finantzaketari aplikatu nahi dion ehuneko 30eko murrizketa.

3. Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak zuzendu dezan “Hezkuntza Departamentuaren eta Nafarroako toki entitateen arteko lankidetzaren hitzarmena, udal titulartasuneko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeak finantzatu eta kudeatzeko”, eta, halatan, mantentzeko dezan familiek eta toki entitateek egiten dituzten ekarpenak kendu ostean aplikatu beharreko urteko moduluaren % 100en finantzaketa, halako moldez non lehengo baldintzak berreskuratuko baitira.”

Iruñean, 2014ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak zeharo salatu eta arbuiatzen baititu indarkeria matxistako kasuak.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2014ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak zeharo salatu eta arbuiatzen ditu Txantrean gertatutakoa bezalako indarkeria matxistako kasuak.

2. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna eta babesa adierazten dizkie sexu-erasoen edo eraso matxisten biktima izan diren emakumeei; bereziki, bortxaketa baten biktima izan dela salatu duen emakumeari.

3. Nafarroako Parlamentuak bere kezka adierazten du, bereziki jai-giroetan gertatzen diren jarrera eta jokabide matxistengatik, eta zero tolerantziako jarrera eta politika bat beharrezkoak

direla adierazten du. Horri dagokionez onartezintzat jotzen du jaiak zigorgabetasun-esparru bihurtzera heldu ahal izatea, non emakumeak laido-tzeko jarrerak sustatzen ahal baitira.

4. Nafarroako Parlamentuak adierazten du emakumeen aurkako indarkeria errotik desagerrazteko borondatea duela, eta egiaztatzen du gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desberdintasuna dela indarkeria matxistaren jatorria. Hortaz, adierazten du bere borondatea dela desberdintasun horri aurre egitea eta hartu beharreko neurriak hartzea egiazko berdintasuna sustatzeko, hezkuntza-esparrutik hasita”

Iruñean, 2014ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera



---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, jakitekoa zer arrazoi dituen Gizarte Politiketako Departamentuak Gizarteratze-errenta jasotzean iruzur egitearen kasu-kopurua 2014an igoko dela ondorioztatzeko.**

*PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa zer arrazoi dituen Gizarte Politiketako Departamentuak Gizarteratze-errenta jasotzean iruzur egitearen kasu-kopurua 2014an igoko dela ondorioztatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Foru parlamentari Patxi Leuza García, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkezten du, Nafarroako Parlamentuko Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzeko.

Iragan apirilaren 23an, Gizarte Politiketako kontseilariak zenbait neurri iragarri zituen gizarteratze errenta jasotzeari dagokionez iruzurra kontrolatzeko. Hori dela-eta,

Gizarte Politiketako Departamentua zertan oinarritzen da esateko 2014an % 0,7tik % 2,4 igoko dela gizarteratze errenta jasotzean iruzurra egiten dutenen kasu-kopurua?

Iruñean, 2014ko apirilaren 24an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

**Galdera, kirol klubei emandako dirulaguntzak argitaratzeari eta Kirolaren Mahaian lortutako konklusioen betetze-mailari buruzkoa.**

*MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, kirol klubei emandako dirulaguntzak argitaratzeari eta

Kirolaren Mahaian lortutako konklusioen betetze-mailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Victoria Arraiza andreak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Iragan azaroan, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak aho batez onetsi zituen Kirolaren Mahaiak taxututako ondorioak, alde zurretik Mahaiak eta Eledunen Batzarrak onetsitakoak. Onetsi zirenetik sei hilabete igarota, ikus daiteke badirela zenbait alderdi nahi bezala hobetu ez direnak. Izan ere, gaur den egunean ez da argita-

ratu kirol taldeentzako diru-laguntzen foru agindua, nahiz eta 2013-2014 denboraldia amaitzean den kirolen batean, eta jada bukatuta dagoen beste zenbaiten kasuan, horrenbestez, ezarriko diren zenbatekoak zein izanen diren jakin gabe.

- Noiz argitaratuko da aipatu foru agindua?
- Zein da Kirolaren Mahaiak ateratako ondorioen betetze-maila?

Iruñean, 2014ko apirilaren 25ean

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

## **Galdera, Lizarrako Santo Domingo zahar-etxean dauden plaza libreei buruzkoa.**

**BIKENDI BAREA Aiestaran Jaunak EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, Lizarrako Santo Domingo zahar-etxean dauden plaza libreei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Gizarte Politiketako kontseilariak batzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak bi zahar-etxe kudeatzen ditu bere sare publikoan: El Vergel eta Santo Domingo. Egoitza-ereduaren gaineko kudeaketa publikoko ereduaren eztabaida alde batera utzita, argi dago Administrazioaren betekizuna dela erabiltzaileei zerbitzurik onena ziurtatzea.

Une honetan, Santo Domingon 20 bat ohe daude hutsik, eta, "paradoxikoa" bada ere, Lizarrako beste zahar-etxean, zeina kudeaketa pribatu-

koa baita, itxarote-zerrenda bat dago, arreta egozia eduki ahal izateko oinarrizko zerbitzuak behar dituzten pertsonena.

Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako Departamentuak ezarritako politika mota horren asmoa askoz garrantzitsuagoa eta munta handiagokoa izan daiteke arestian azaldutako egitate egiaztatu soil hori baino.

Ageri-agerian utzi beharrekoa da interes pribatu bultzatuz sektore publikoa nahita ahultzeko ekintzak daudela, instalazioak desegokiro mantenduak direla eta langile-ratioak okerrekoak direla erabiltzaileei emandako zerbitzuan.

Hortaz, gai honi buruzko honako galdera hauek egiten dizkiogu Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako kontseilariari, batzordean ahoz erantzun ditzan:

- Lizarrako Santo Domingo zahar-etxean 20 leku daude hutsik, eta gertuko beste zahar-etxe batean, aldiz, itxarote-zerrenda bat dago erabiltzaileei kasu emateko. Zergatik?

- Gizarte Politiketako Departamentuak ba al du Santo Domingo zahar-etxe egoiliar kopurua murrizteko asmorik? Ezezkoan,

- Zer egingen du Lizarrako zahar-etxeak hartu ahal izan ditzan gertuko beste zahar-etxe batzuetako itxarote-zerrendetako eskatzaileak?

Iruñean, 2014ko apirilaren 28an

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

## **Galdera, mamografiak historia kliniko informatizatuari gehitzeari buruzkoa.**

### *ENRIQUE MARTÍN DE MARCOS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Enrique Martín de Marcos jaunak aurkeztutako galdera, mamografiak historia kliniko informatizatuari gehitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Enrique Martín de

Marcos jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Bularreko minbiziko screening programako mamografoak aspaldi daude digitalizatuta; hortaz, irudiak sistema informatikoan jasotzeko aukera dago. Horrenbestez, hauxe jakin nahi dut:

Osasun Departamentuak pentsatu al du mamografiak epe laburrean historia kliniko informatizatuan sartzea, halako moduan non, beharrezkoa izanez gero, laguntza espezializatuko edozein zentrotatik kontsultatu ahalko baitira?

Iruñean, 2014ko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Enrique Martín de Marcos

## **Galdera, *Vanity Fair* aldizkariak argitaratu duen Nafarroako lehendakariaren elkarrizketari buruzkoa.**

*JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Miguel Nuin Moreno jaunak aurkeztutako galdera, *Vanity Fair* aldizkariak argitaratu duen Nafarroako lehendakariaren elkarrizketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari José Miguel Nuin Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

tzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

*Vanity Fair* aldizkariaren Espainiako edizioaren azken alean Nafarroako Gobernuak lehendakariari eginiko elkarrizketa bat argitaratu da.

– Nafarroako Gobernuak ordaindu egin al dio *Vanity Fair* aldizkariari, bai eskudirutan bai publizitatean, Gobernuak lehendakari Yolanda Barcina andreari elkarrizketa egin diezaion?

– Nafarroako Gobernuak akordiorik egin al du beste inoiz *Vanity Fair* aldizkariarekin nahiz beste edozeinekin, Barcina lehendakariari elkarrizketa egite aldera, ordain ekonomiko baten truke, eskudirutan nahiz publizitatean?

Iruñean, 2014ko apirilaren 25ean

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

## **Galdera, N-121-A errepidean (Iruña-Behobia) lizitazioara atera den Belateko eta Almandozko tunelak bikoizteko aukeren azterlanari buruzkoa.**

*ELOY VILLANUEVA CRUZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkeztutako galdera, N-121-A errepidean (Iruña-Behobia) lizitazioara atera den Belateko eta Almandozko tunelak bikoizteko aukeren azterlanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuaren kontratazio-atariak lizitazioara atera du honako lan hau: "N-121-A errepidean (Iruña-Behobia) Belateko eta Almandozko tunelak bikoizteko aukeren azterlana."

Azterlanaren xedea da zehaztea "N-121-A errepidean Belateko eta Almandozko tunelak bikoizteko trazadura-aukera teknikoki bideragarriak, bi tunelen arteko errepide-tartearen bikoizketa, bai eta egungo galtzada eta bikoiztutako galtzada berria tartearen hasieran eta amaieran konektatzeko egin beharreko trazadura-tarteak ere."

Azterlan hori dela-eta hauxe jakin nahi dut:

–N-121-A errepideko zein kilometro-puntutan dauden Belateko eta Almandozko tunelak.

– Azterlan horretan sartutako N-121-A errepidearen tarte horrek zer kilometro-puntu hartzen dituen.

Iruñean, 2014ko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

## **Galdera, Sozietateen gaineko zerga aldatzeko proposatutako neurri zehatzetzi buruzkoa.**

### *MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Sozietateen gaineko zerga aldatzeko proposatutako neurri zehatzetzi buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babese-

an, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuo Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren zuzendari nagusiak, María Jesús Valdemosos andreak, agerraldia egin zuen Parlamentuan iragan apirilaren 15ean, ezagutarazte aldera 2013an zehar ekintzailtza sustatzearen eta enpresa-jarduera dinamizatzearen arloan garatutako neurriak nahiz legegintzaldiaren amaiera arte aurreikusitakoak, eta hauxe adierazi zuen:

“Jakina, 2015erako laguntzen esparruan ere ari gara lanean aurtan. Laguntza horiek, nolabait ere, zerga-erreformako neurrien eskutik joanen dira, industria berrabiaraztera bideraturik. Zehazki, hobari fiskalak egonen dira, inbertsiorako laguntzekin batera (...)”

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

- Sozietateen gaineko zergaren aldaketari dagokionez planteatutako neurri zehatzak.

Iruñean, 2014ko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## Galdera, «*after-care*» direlako bisitei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, «*after-care*» direlako bisitei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babese-

an, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuo Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren zuzendari nagusiak, María Jesús Valdemoros andreak, agerraldia egin zuen Parlamentuan iragan apirilaren 15ean, ezagutarazte aldera 2013an zehar ekintzailtza sustatzearen eta enpresa-jarduera dinamizatzearen arloan garatutako neurriak nahiz legegintzaldiaren amaiera arte aurreikusitakoak, eta hauxe adierazi zuen:

“Enpresa-politiken koordinazioari dagokionez, «*after-care* bisitak» izenekoak aipatu nahi ditut”

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

- Egindako bisiten zerrenda osoa.
- Bisita horietan ateratako ondorioak.

Iruñean, 2014ko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## Galdera, inbertsio-proiektuen abaletarako deialdiaren ildo nagusiei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, inbertsio-proiektuen abaletarako deialdiaren ildo nagusiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuo Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren zuzendari nagusiak, María Jesús Valdemoros andreak, agerraldia egin zuen Parlamentuan iragan apirilaren 15ean, ezagutarazte aldera 2013an zehar ekintzailtza sustatzearen eta enpresa-jarduera dinamizatzearen arloan garatutako neurriak nahiz legegintzaldiaren amaiera arte aurreikusitakoak, eta hauxe adierazi zuen:

“Abian den urteari dagokionez, inbertsio-proiektuetarako abal-deialdi berri bat eginen da. 4 milioi euroko gehieneko muga izanen du, eta 1.500.000 eurokoa proiektu bakoitzeko.

Deialdi honen azken xehetasunak lantzen ari gara. Laguntzak eskatzen ahalko dituzte Nafarroan gauzatutako inbertsio-proiektuek, baldin eta Nafarroaren ekonomiako sektore estrategikoetako proiektutzat har badaitezke. Hortaz, honako sektore hauetako proiektuei buruz ari gara: nekazari-

tzako elikagaiak, biofarmazeutikoa, energia berriztagarriak, automozioa, mekatronika eta nazioartekotze-prozesuetan dauden enpresak”

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

- Zeintzuk dira deialdi horretako ardatz nagusiak? Deialdi horren zirriborroa eskatzen dugu.

Iruñean, 2014ko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, foru intereseko proiektuei buruzkoa.**

### *MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, foru intereseko proiektuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuko Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren zuzendari nagusiak, María Jesús Valdemoros andreak, agerraldia egin zuen Parlamentuan iragan apirilaren 15ean, ezagutarazte aldera 2013an zehar ekintzailtza sustatzearen eta enpresa-jarduera dinamizatzearen arloan garatutako neurriak nahiz legegintzaldiaren amaiera arte aurreikusitakoak, eta hauxe adierazi zuen:

“2013an, foru erkidegoaren intereseko zenbait proiekturen definizioan ere lan egin da; dakizueenez, kalifikazio horrek administrazio-izapideak sinplifikatzen ditu.”

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

• Zeintzuk dira proiektu horiek? Proiektuak igortzea eskatzen dut.

• Hori dela-eta aurreikusitako kronograma eta jarduketak.

• Zertan datza aipatzen den “foru erkidegoaren interes” hori?

Iruñean, 2014ko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, industrialdeetan ezartzeko eta kokagune egokia aurkitzeko laguntza jaso duten enpresei buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, industrialdeetan ezartzeko eta kokagune egokia aurkitzeko laguntza jaso duten enpresei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuko Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren zuzendari nagusiak, María Jesús Valdemoros andreak, agerraldia egin zuen Parlamentuan iragan apirilaren 15ean, ezagutarazte aldera 2013an zehar ekintzailtza sustatzearen eta enpresa-jarduera dinamizatzearen arloan

garatutako neurriak nahiz legegintzaldiaren amaiera arte aurreikusitakoak, eta hauxe adierazi zuen:

“Nafarroako enpresentzako laguntzen beste parte bat da jarduera ekonomikoen eremuak sustatzeko ekintzena.

Halatan, industrialdeetan azpiegiturak hobetzeko inbertsioak egin dira, Nafarroako Gobernuaren jabetzako industrialdeetan enpresak instalatzea errazteko. Berebat, enpresei laguntza eman zaie, kokalekurik aproposena bilatzeko, bai eta kasuko izapideak egiteko ere”

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

- Zer enpresari lagundu zaie? Zerrenda osoa eskatzen dut.

- Zenbat diru eduki da enpresa horiei laguntzeko? Zenbateko horren xehakapena eskatzen dut.

- Zenbateko inbertsioa egin da industrialdeetako azpiegiturak hobetzeko, enpresak paratu ahal izan daitezkeen?

- Orobat adierazi zen enpresa-inbertsioen prozesuei lotutako administrazio prozesuetan enpresei laguntzeko lana egin dela. Horri dagokionez, zenbat aldiz egin da laguntzeko lan hori?

Iruñean, 2014ko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro



## **Galdera, nekazaritzako produktuen balio erantsia handitzeko laguntzei buruzko programa definitzeko eta garatzeko kronogramari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, nekazaritzako produktuen balio erantsia handitzeko laguntzei buruzko programa definitzeko eta garatzeko kronogramari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babese-

an, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuo Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren zuzendari nagusiak, María Jesús Valdemoros andreak, agerraldia egin zuen Parlamentuan iragan apirilaren 15ean, ezagutarazte aldera 2013an zehar ekintzaitza sustatzearen eta enpresa-jarduera dinamizatzearen arloan garatutako neurriak nahiz legegintzaldiaren amaiera arte aurreikusitakoak, eta hauxe adierazi zuen:

“Nekazaritzako produktuen balio erantsia igotzeko laguntzei dagokienez, programazio-aldi berria ere ari gara jorratzen”.

Hori dela-eta, hauxe eskuratu nahi dut:

- Laguntza programa hori definitzeko eta garatzeko kronograma.

- Horretara bideratutako aurrekontua.

- Nafarroako Gobernuak horri buruz darabilen dokumentazio guztia.

Iruñean, 2014ko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, enpresa-inbertsiorako 2014-2020 eperako laguntzen mapa definitzeko eta garatzeko kronogramari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, enpresa-inbertsiorako 2014-2020 eperako laguntzen mapa definitzeko eta garatzeko kronogramari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuako Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren zuzendari nagusiak, María Jesús Valdemoros andreak, agerraldia egin zuen Parlamentuan iragan apirilaren 15ean, ezagutarazte aldera 2013an zehar ekintzailtza sustatzearen eta enpresa-jarduera dinamizatzearen arloan garatutako neurriak nahiz legegintzaldiaren amaiera arte aurreikusitakoak, eta hauxe adierazi zuen:

“Enpresa-inbertsiorako laguntzen kasuan, aurtengo ekainaren 30ean hasiko da 2014-2020 aldi

berria. Hori dela-eta, jadanik iaz hasi ginen jorrazten 2014-2020 aldiko laguntzen mapa berria.”

Hori dela-eta, hauxe eskuratu nahi dut:

- Laguntzen mapa hori definitzeko eta garatzeko kronograma.
- Horretara bideratutako aurrekontua.
- Nafarroako Gobernuak horri buruz darabilen dokumentazio guztia.
- Bruselara igorritako mapa-proposamenaren kopia bat.

Iruñean, 2014ko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

---

## **Galdera, industriaren trakzio-gaitasunaren gaineko azterlanaren konklusio orokorreari buruzkoa.**

**MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, industriaren trakzio-gaitasunaren gaineko azterlanaren konklusio orokorreari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuako Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren zuzendari nagusiak, María Jesús Valdemoros andreak, agerraldia egin zuen Parlamentuan iragan apirilaren 15ean, ezagutarazte aldera 2013an zehar ekintzailtza sustatzearen eta enpresa-jarduera dinamizatzearen arloan garatutako neurriak nahiz legegintzaldiaren amaiera arte aurreikusitakoak, eta bertan adierazi zuen joan den urtearen amaieran azterlan bat egin zutela Ekonomia Zerbitzuan “industriaren trakzio-ahalmen horri buruz, gure ekonomiaren input-output tauletan oinarrituta”, eta azaletik aipatu zituen azterlan horretan ateratako ondorioak.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

- Zeintzuk izan ziren azterlan horretan ateratako ondorio orokorrak, modu zabal eta sakonagoan azalduta?
- Halaber, parlamentari honek azterlan osoa igor dakion eskatzen du.

Iruñean, 2014ko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, soldatapekorik gabeko enpresen kopuruaren bilakaera beste eskualde batzuetan baino okerragoa suertatu izanaren arrazoiari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, soldatapekorik gabeko enpresen kopuruaren bilakaera beste eskualde batzuetan baino okerragoa suertatu izanaren arrazoiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuko Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren zuzendari nagusiak, María Jesús

Valdemoros andreak, agerraldia egin zuen Parlamentuan iragan apirilaren 15ean, ezagutarazte aldera 2013an zehar ekintzailatza sustatzearen eta enpresa-jarduera dinamizatzearen arloan garatutako neurriak nahiz legegintzaldiaren amaiera arte aurreikusitakoak, eta hauxe adierazi zuen:

“Erregioen arteko konparazio bat egiten baldin bada, Estatistikaren Institutu Nazionalak argitaratutako DIRCEn datuak erabilita, ikusten dugu Nafarroa dela krisitik enpresa-ehun gehien salbatu duten erkidegoetako bat.

Argi dago hori ez dela gertatu soldatapekorik gabeko enpresen kopuruaren bilakaerarengatik, erregio gehienetan baino okerragoa izan baita, lehen esan dugun bezala.”

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

- Soldatapekorik gabeko enpresen kopuruaren bilakaera zergatik gertatu da beste eskualde batzuetan baino okerragoa?

- Zeintzuk dira egoera horren ondorioak?

- Nafarroako Gobernua zer ari da egiten, edo zer egin behar du, egoera horri aurre egiteko?

Iruñean, 2014ko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, industria berrabiarazteko planaren kronogramari buruzkoa.**

### *MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, industria berrabiarazteko planaren kronogramari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuo Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren zuzendari nagusiak, María Jesús Valdemoros andreak, agerraldia egin zuen Parlamentuan iragan apirilaren 15ean, ezagutarazte aldera 2013an zehar ekintzailtza sustatzearen eta enpresa-jarduera dinamizatzearen arloan garatutako neurriak nahiz legegintzaldiaren amaiera arte aurreikusitakoak, eta hauxe adierazi zuen: "aurreko urteetako jarduketak osatu beharra dago, industria berrabiarazteko plan baten bidez".

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

- Industria berrabiarazteko plan horren kronograma.

Aipatu planera bideratutako aurrekontua.

- Industria berrabiarazteko planaren esparruan zer eragileretik lankidetzara dagoen edo egonen den.

- Nafarroako Gobernuak horri buruz darabilen dokumentazio guztia igortzea.

Iruñean, 2014ko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, museoak asteburuetan ireki ahal izateko garatu diren jarduketari buruzkoa.**

### *AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako galdera, museoak asteburuetan ireki ahal izateko garatu diren jarduketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuak aho batez onetsi zuen mozio bat 2012ko maiatzaren 10ean, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatu baitzen zenbait jarduketa egin zitzaizkion, museoak asteburuetan ireki ahal izateko.

Parlamentuaren agindu hori dela-eta hauxe jakin nahi dut:

Mozio hori betetze aldera egindako jarduketak.

Asteburuetan irekitzen duten titulartasun publiko museoen eta kultur-zentroen zerrenda gaurkotua, Nafarroako Museoen Sarea osatzen duten zentroak ere barnean hartzen dituena, eta ezarritako ordutegiak.

Iruñean, 2014ko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

## **Galdera, gaur egun PFEZaren zerga-oinarrian aplikatzen diren murrizketak kuota osoan aplikatu beharreko kenkari bihurtzeak diru-bilketan izan lezakeen eraginaren gaineko txostenari buruzkoa.**

### **MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, gaur egun PFEZaren zerga-oinarrian aplikatzen diren murrizketak kuota osoan aplikatu beharreko kenkari bihurtzeak diru-bilketan izan lezakeen eraginaren gaineko txostenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Idatziz erantzuteko egin nuen galdera bat zela eta (PES-00018), erantzunean, zeina otsailaren 18an igorri baitzitezid, Goicoechea kontseilariak adierazten zuen, 3. puntuan, gaur egun PFEZaren

zerga-oinarrian aplikatzen diren murrizketak kuota osoan aplikatu beharreko kenkari bihurtzeak diru-bilketan izan lezakeen eraginaren gaineko txostena bukatze-fasean zegoela une horretan, eta laster aurkeztuko zirela emaitzak.

2012ko amaieran izan zen zerga-eztabaidan, gure taldeak lege proposamen bat aurkeztu zuen non, besteak beste, planteatzen zen gutxiengo pertsonalaren ondorioz zerga-oinarrian egiten den murrizketa bihur zedin kuotan egin beharreko kenkari. Ekimen hura ez zen onartu, konplexua zelako, eta erreforma fiskalerako lantaldean erabaki zen azter zitekeela lasaitasun handiagoz. Aurreko paragrafoan aipatutako txostenak hausnarketa-ildo horri erantzuten dio.

Hurrengo eztabaida fiskalari begira, izan liteke, beste azterlan edo datu batzuekin batera, erreferentzia-elementu garrantzitsu bat parlamentu-taldeek beren iritzia osatzeko gai muntadun batean. Ezin dugu ahaztu PFEZaren zerga-oinarrian egiten diren murrizketek urtean 2.000 milioi euro baino dezente gehiago egiten dutela.

Hori guztia ikusirik, honakoak dira galderak:

1. Departamentuak amaitua al du jadanik txosten hori?

2. Noiz du erreforma fiskalerako lantaldeari aurkeztu eta lantaldeko kide guztiei emateko asmoa?

Iruñean, 2014ko apirilaren 30ean

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

## **Galdera, udal eskumenetik kanpo gelditzen diren eta gaur egun toki esparruan ematen ari diren gizarte zerbitzuei dagokienez Nafarroako Gobernuak duen asmoari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patxi Leuza García jaunak egindako galderaren erantzuna, udal eskumenetik kanpo gelditzen diren eta gaur egun toki esparruan ematen ari diren gizarte zerbitzuei dagokienez Nafarroako Gobernuak duen asmoari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko otsailaren 28ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du toki esparruan ematen ari diren hezkuntza zerbitzuei dagokienez Nafarroako Gobernuak duen asmoari buruz (8-14/PES-048). Hauxe erantzun dio Gizarte Politiketako kontseilariak:

Lehena.- Toki Administrazioaren Arrazionaltasunari eta Iraungarritasunari buruzko abenduaren 17ko 27/2003 Legeak, besteak beste, udal eskumenen araubidearen aldaketa ekarri du egiazki.

Tokiko eskumenen aldaketa horrek ukitzen dituen alderdietako bat da, hain zuzen ere, gizarte zerbitzuei dagokiena.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 25., 26. eta 27. artikulua aztertuta (haien testua langai daukagun 27/2003 Legeak aldatu ditu), honakoa aurkituko dugu:

a) Udalen eskumen berekiak arautzen dituen 25. artikulua horien artean sartzen du, e) letran, "gizarte-premiako egoeren ebaluazioa eta informazioa eta gizartean bazterturik edo horrela gertatzeko arriskuan dauden pertsonen berehala laguntzea."

b) 26. artikulua toki entitateek nahitaez eman behar dituzten gutxienezko zerbitzuak arautzen ditu, eta aurreko puntuan aipatu dugun eskumena nahitaezkatzat jotzen du soilik 20.000 biztanleko gorako udalerrietzat.

c) 27. artikulua, azkenik, toki entitateen eskumenen eskuordetzea arautzen du. Hartan, izan

ere, izapide daitezkeen neurri batzuk aipatzen dira, nolana ere izaera exhaustiboa ez duen zerrenda batean. Berriaz aipatzen diren artean dago "gizarte zerbitzuak ematea, aukera berdintasuna sustatzea eta emakumearen aurkako indarkeria prebenitzea."

Bigarrena.- Behin eta berriz aipatzen ari garen 27/2013 Legeko bigarren xedapen gehigarriak, bestalde, gizarte zerbitzuen arloan eskumenen mapa berria egituratzeko behar den araubide iragankorra ezartzen du, eta haren aplikazioa 2016ko urtarrilaren 1erako geroratzen da: "2015eko abenduaren 31n, finantzaketa autonomikorako sistemari eta toki ogasunei buruzko arauetan ezarritako terminoetan, autonomia erkidegoek udalaren eskumen berekitzat jotzen ziren eskumenen titulartatea hartuko dute, gizarte zerbitzuen prestazioari eta gizarte sustapenari eta gizarteratzeari buruzkoak". Gainera, esaten da ezen "aurreko idatz-zatian aipatutako gehieneko epean, eta zerbitzuak ebaluatzeko, berregituratzeko eta ezartzeko plan bat egin ondoren, autonomia erkidegoek, beren eskumenen esparruan, prestazio horren berehalako estaldura hartu beharko dute beren gain".

Hirugarrena.- Orain arte aipatutakoak arloan aplikatzeko den araubide komuna deskribatzen du.

Alabaina, abenduaren 27ko 27/2013 Legeak jasotakoa Nafarroan nola aplikatuko den jakiteko, gure erkidegoan aplikatzeko den araubidea arautzen duen 27/2013 Legeko bigarren xedapen gehigarria jo beharko da.

1. Lege hau Nafarroako Foru Komunitateari aplikatuko zaio Konstituzioko 149.1.14.a eta 18.a artikuluan eta lehen xedapen gehigarrian ezarritako terminoetan, ezertan kendu gabe Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikotik heldu diren berezitasunak eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoko azken xedapenetako hirugarrenean ezarritakoa. Aplikatzerakoan, eta dagozkien koordinazio- eta zaintza-ahalmenak kendu gabe, prestazio moduari buruz erabakitze eskumena, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen Legeko 26.2 artikulua

aipatzen duena, Nafarroako Foru Komunitateari dagokio.

2. Nafarroako Foru Komunitateak, bere eskumenen esparruan, eskumen batzuk eman ahalko dizkie, eskumen bereki gisa, Nafarroako lurraldeko udalei, bai eta Nafarroako gainerako toki entitateei ere, betiere Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen Legeko 25. artikuluko 3., 4. eta 5. idatz-zatietan aipatutako irizpideen arabera.

3. Lege horretako 7.4 eta 26.2 artikuluek finantza-zaintza egiten duen Administrazioari esleitzen dizkieten eginkizunak Nafarroako Foru Komunitateari egokituak zaizkio, uztailaren 15eko 25/2003 Legeak onetsitako Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoko zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

4. Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren eta uztailaren 15eko 25/2003 Legeko zazpigarren xedapen gehigarriarekin bat, Nafarroako Foru Komunitateak jasoko ditu, halaber, Nafarroako toki entitateetako kontu-hartzailetza organoek, oinarrizko araudia betez, egindako txostenak, eta berehala igorriko dizkio Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioari. Halaber, Nafarroako toki entitateetako kontu-hartzailetza organoek informazio hori Kontuen Ganberari igorriko diote, Kontuen Epaitegiari esleitutako eskumenak ezertan kendu gabe.

5. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 116.ter artikuluan xedatuaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateak Nafarroako toki entitateek ematen dituzten zerbitzuen kostu efektiboa kalkulatzeko irizpideak garatuko ditu, eta kostu horri buruzko komunikazioa jasoko du.

6. Aurrekontu-egonkortasunaren inguruko helburuen esparruan eta Nafarroari aitortutako eskumenen indarrez –xedapen honetako lehenengo puntuan aipatzen dira eskumen horiek–, Nafarroako Foru Komunitateak erabakiko du zein izanen diren toki korporazioetako kideen guztizko ordainsarien eta laguntzen gehieneko mugak, behin-behineko langileei eta korporazio horien eta beren zerbitzu publikoaren zerbitzuko gainerako langileei dagokionez. Ordainsari horien zehaztapenak, kasua bada, Estatuako legediak ezarritako printzipioei eta egiturari begiratuko die.

Laugarrena.- Xedapen gehigarri horren irakurketa hutsetik, eta zehazki 2. idatz-zatiaren irakurketatik, ondorioztatzen da hark ahalmen izugarria daukala Nafarroako Foru Komunitateak araubide berezi bat egituratzeko, bai udalentsat, bai bestelako toki entitateentzat.

Horri dagokionez, nabarmendu beharra dago Nafarroako Gobernuak jada arlo horretako ekimena bereganatu duela, baita erantzun honetan aipatzen den erreforma onetsi aurretik ere, Parlamentuan Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioa Berrantolatzeke Foru Lege proiektua aurkeztuz. Horrekin, izan ere, uztartu nahi izan dira toki autonomiarekiko errespetua eta tokiko zerbitzuei efizientzia, egonkortasun, arrazionaltasun eta finantza-iraunkortasuneko printzipioak aplikatzea.

Proiektu hori onesteak, Parlamentuan egokitzat jotako aldaketak eta doikuntzak eginda, aukera emanen zuen, adierazi dugun bezala, Nafarroan eskumenen toki araubide berezi bat egituratzeko, besteak beste gizarte zerbitzuen arloan.

Nolanahi ere, ekimen horren ondorioz, Nafarroako Parlamentuak lantalde bat jarri du abian Nafarroako tokiko maparen erreforma aztertzeke. Lantalde horrek lanean jarraitzen du gaur egun, eta arloa dela-eta ekimena izateko ardura izanen du.

Bosgarrena.- Nolanahi ere, eta adierazitakoa alde batera utzita, hasita dago Nafarroako oinarrizko gizarte zerbitzuen antolamendu-, eskumen- eta finantzaketa-eredua berraztertzeke lana.

Horretarako, koordinazio-bilerak egin dira Gizarte Politiketako Departamentuko Gizarte Politikako eta Kontsumoko Zuzendaritza Nagusiaren eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuaren artean.

Bilera horietan, honakoak aztertzen ari dira:

a) 27/2013 Legearen eta hark oinarrizko gizarte zerbitzuetan dauzkan eraginei buruzko azterketa.

b) Foru araudiak gaiari buruz dioenari buruzko azterketa.

c) Gizarte zerbitzuen kostu efektiboei eta haien finantzaketa-iturrii buruzko azterlana.

d) 27/2013 Legean adierazitako egutegiari egokitzea, eskumenen esleipenari dagokionez, eta, kasua bada, aurreikusitako eskuordetze prozedurari dagokionez.

Azterlan honen ondorioak legeaz aurreikusitako araubidearen menpe egonen dira, toki entitateek haiek itun ditzaten.

Lan horiek 2014an egingen dira, eta parte hartzeke prozesua 2015eko lehen seihilekoan izanen da.

Bitartean, Nafarroako Parlamentuak tokiko mapari buruzko proiektu berekirik garatzen ez bada, gizarte zerbitzuen arloko eskumen-banaketa orokor berriak indarra hartzen ez duen bitartean,

gizarte zerbitzuak finantzatzeko egungo sistema-rekin jarraituko da.

Seigarrena.- Azkenik, aipatu beharra dago Foru Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2014ko martxoaren 17an egindako bilkuran, erabaki duela Osoko Bilkurari proposatzea konstituzio-kontraktasuneko errekurtsioa auzerik dadila Toki Administrazioaren Arrazionaltasunari eta Iraungarritasunari buruzko 27/2013 Legearen aurka.

Iragarritako konstituzio-kontraktasuneko errekurtsioa jartzeak izan ditzakeen ondorioei begiratu beharko zaie.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko martxoaren 25ean.

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

## **Galdera, Iruñeko Udalak Nafarroako Gobernuari Arrosadian lagatako etxebizitza komunitarioei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Koldo Amezketa Díaz jaunak egindako galderaren erantzuna, Iruñeko Udalak Nafarroako Gobernuari Arrosadian lagatako etxebizitza komunitarioei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko martxoaren 7ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Koldo Amezketa Díaz jaunak

idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00054) Arrosadia auzoan Urrobi Ibaia eta Blas de la Serna kaleen artean dauden etxebizitza komunitarioei buruz:

Aipatutako etxebizitzak Iruñeko Udalarenak dira; horrenbestez, haien kudeaketa ez dagokio departamentu honi. Galdera, betiere, Iruñeko Udalari egin beharko litzaioke, eta, bereziki, Gizarte Ongizate Alorrari.

Iruñean, 2014ko martxoaren 28an

Sustapeneko kontseilaria: Luis Zarraluqui Ortigosa



## **Galdera, ikastetxe publikoetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailaren 2012/2013 ikasturteko kanpo ebaluazioak izandako emaitzei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Aitziber Sarasola Jaca andreak egindako galderaren erantzuna, ikastetxe publikoetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailaren 2012/2013 ikasturteko kanpo ebaluazioak izandako emaitzei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko otsailaren 28ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko apirilaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitziber Sarasola Jaca andreak idatziz erantzuteko egindako galdera egin du (8-14/PES-00052), haren bitartez eskatze aldera Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako arloz arloko emaitzak igortzeko, ikastetxe publiko guztietakoak. Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak, dagokion zerbitzuak egindako txostenen oinarriturik, honako erantzuna igorri dio:

1.- Ikastetxe bakoitzeko eskola kontseiluei dagokie beren emaitzak ezagutzea, haiek ikastetxearen errealitatearen testuinguruan baloratzeko, zeren eta testuingururik gabeko informazio horrek behar ez diren juizio desegokiak eta ikastetxeentzat zuzengabeak ekarriko bailituzke.

2.- Hezkuntza Ikuskaritzaren Zerbitzuaren barruan datu horiek ikastetxe bakoitzeko ikuskaitzaileak ezagutzen ditu, haren ikuskaritza egiteko xedez eta aldagai batzuek testuinguru horretan izan dituzten emaitzak aztertzeko. Hezkuntza Atalak neurri eta aurreneurri guztiak jartzen ditu ikastetxeen arteko konparaketak edo ikastetxeen arteko bestelako ordenak edo rankingak saihesteko.

3.- Datu kuantitatiboak ematearena, interpretaziorako behar den informazioa eman gabe, ez dago teknikoki oinarrituta eta baliorik gabeko ondorioak eragin litzake, Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak aipatzen duen bezala. Izan ere, lege horrek jasotzen du testuinguruari buruzko informazioa gehitu beharra datu kuantitatiboetan oinarritutako balorazio horiek egiteko, eta honakoa dio berariaz: "Hezkuntza-administrazioek egiten dituzten eba-

luazioen emaitzak hezkuntza-komunitateari ematen zaizkio ezagutzera Espainiako ikastetxe guztientzat komunak izanen diren adierazle batzuen arabera, datu pertsonalak identifikatu gabe eta testuinguruaren faktore sozioekonomikoak eta soziokulturalak aurrez aintzat hartuta (147. artikuluko 2. idatz-zatia). Ondoren, honakoa esaten da: "Gobernuak oinarri batzuk ezarriko ditu ebaluazioen emaitzak erabiltzeko eta haien sarbide publikorako, aurrez autonomia erkidegoei kontsulta eginda." Une honetan, ez daukagu horrelako arau-garapenik.

4. Nolanahi ere, Hezkuntza Ikuskaritzak Eskola Kontseiluari informazio orokorra igortzen dio, Nafarroako Hezkuntza Sistemaren txostenean sar dezan, hain zuzen ere urtero, hezkuntzaren arloko partaidetza sozialeko organo goren horrek egiten duen txostenean. Txosten horretan –aipatutako Kontseiluaren webgunean dago– emaitza orokorrak aurkezten dira, behar adinako bereizkuntza gradu batekin, emaitza akademikoei buruzko ikuspegi xehatua eta muntaduna lortzeko; hain zuzen ere, titularitatearen eta hizkuntza ereduaren arabera emaitzak eskaintzen ditu. Inolaz ere ez dira ikastetxez ikastetxe aurkezten, zeren eta ulertzen baita halako bereizkuntzak egiteak Nafarroako Eskola Kontseiluaren helburua gainditzeko duela. Gainera, emaitza horiek behar den testuinguruarekin ematen dira, ikastetxeetako eskola kontseiluetan egiten den bezala. Nafarroako Eskola Kontseiluaren txostenean jasotako aldagaien artean, honakoak ageri dira: alderdi demografikoak, sozioekonomikoak, sozialak eta hezkuntzakoak, ezarritako baliabideak, hezkuntza-prozesuak eta hezkuntza-politikak, besteak beste.

5. Datu horiek interes berezia baldin badute, haiek eskatutako parlamentariak ikastetxe publikoetan jaso ahaliko ditu, ikastetxeak berak azaldutako testuinguruarekin, betiere behar diren aldagaiak kontuan hartuta: ikastetxearen testuinguru sozial eta kulturala, ikastetxea bere hobekuntza planetan garatzen ari den hezkuntza-programak, irakasleek ematen dituzten kalifikazioak oinarritzek barne irizpideak eta abar. Izan ere datu horiek guztiak ikastetxeari dagozkie.

6. Nolanahi ere, Hezkuntza Departamentuak, aurreko kasuan, informazio hori eskura dezakeen

parlamentariari laguntza eman liezaioke, lanak errazte aldera.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko martxoaren 28an

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

## **Galdera, Legasako Arcelor-Mittal enpresaren lurretan jarduera ekonomikoaren eremu bat eraikitzearen bideragarritasun ekonomikoari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Legasako Arcelor-Mittal enpresaren lurretan jarduera ekonomikoaren eremu bat eraikitzearen bideragarritasun ekonomikoari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko martxoaren 7ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko apirilaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du xehetasun batzuk ezagutu nahi baititu Arcelor-Mittal enpresak Legasan dauzkan lursail batzuei buruz (PES-00055). Hauxe erantzun dio Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilariak:

1. Ez Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren Zuzendaritzak, ez Nasuvinsak, biak izaki jarduera ekonomikoaren arloetan sustapenaren gaian eskudunak diren Nafarroako Gobernuaren organoak, ez dute ezagutzen Arcelor-Mittalek Legasan dauzkan industria-lursailetan jarduera ekonomikoetarako arlo bat eraikitzearen bideragarritasun ekonomikoak aztertzeko aipatutako planteamendua.

2. Honakoak izan dira Gobernuak Arcelor-Mittal enpresarekin izan dituen azken hartu-emanak:

– 2011ko martxoan, Bertizaranako udaletxean, Udaleko, Arcelor-Mittal enpresako eta NILSAko

ordezkariekin bildu ginen, eskualdean araztegi bat jartzearen bideragarritasuna aztertzeke.

– 2012an zehar, Enpresen Sustapenerako Zerbitzuak, orain Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren Zuzendaritzan dagoenak, zenbait hartu-eman izan zuen enpresarekin Lesakako inbertsiorako laguntza-espeditzeko ordainketa bat egiteko.

Une hartan atera zen ondorioa izan zen enpresak nolabaiteko industria-jarduerari eusten ziola Legasako bere instalazioetan.

3. Une honetan, ez Nafarroako Gobernuak, ez Nasuvinsak ez dituzte erosi nahi Arcelor-Mittalek Legasan dauzkan instalazioak, honako arrazoiak direla eta:

– Enpresak ez du adierazi instalazio horiek saltzeko asmoa duenik, eta badirudi haietan nolabaiteko jarduera badagoela oraindik.

– Ez dago instalazio horiek erabiltzeko eskari zehatzik.

– Nafarroako Gobernuak jarduera ekonomikoak egiteko lurzorurik badu handik hurbil dagoen Lekarozko Enpresa Parkean.

5. Ez Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren Zuzendaritzak, ez Nasuvinsak ez dute berriki elkarriketarik izan Bertizaranako Udalarekin, eremu horretan jarduera ekonomikoak aktibatze aldera.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko martxoaren 31n

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, zenbait ikastetxetan Lehen Hezkuntzako 4. mailaren 2012/2013 ikasturteko kanpo ebaluazioak izandako emaitzei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Aitziber Sarasola Jaca andreak egindako galderaren erantzuna, zenbait ikastetxetan Lehen Hezkuntzako 4. mailaren 2012/2013 ikasturteko kanpo ebaluazioak izandako emaitzei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko otsailaren 28ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitziber Sarasola Jaca andreak idatziz erantzuteko galderak egin ditu, 2012/2013 ikasturtean zenbait ikastetxetako lehen hezkuntzako 4. mailan (8-14-PES-00050) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetako 2. mailan (8-14-PES-00051) egindako kanpoko ebaluazioan gaitasun bakoitza dela-eta lortutako emaitza xeheak eskatzeko

1. Galderan aipatzen diren ebaluazioetan lortutako emaitzen datuei dagokienez, kontuan hartu beharra dago Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak, bai LOMCEren bidezko erreforma baino lehen, bai erreforma hori eta gero, jada berariazko babesa aurreikusten zuela bai hartzaileentzat, bai balizko erabilerei dagokienez; halaber, zenbait prebentzio ezartzen zituen emaitzak zabaltzeari dagokionez, behar ez diren erabilerak saihesteko.

Bestetik, haien berri emateko berariazko modu gisa, herritarren ordezkariak haiek kontrolatu eta ezagut ditzaten, soilik jasotzen zen Espainiako edo nazioarteko diagnosi-ebaluazioen zabalpena, baina ez ebaluazio autonomikoak, eta lehenengo horien kasuan soilik Diputatuen Kongresuaren bitartez (Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren 147.1 artikulua). Informazio horretan, datuak autonomia erkidegoen arabera ematen dira, ez ikastetxeen arabera.

Nolanahi ere, aipatutako lege organikoko 21. artikulua (zeina kontuan hartu behar baita lehen hezkuntzako datuak eskatzeko) honakoa ezartzen du: "Lehen hezkuntzaren bigarren zikloa amaitzean, ikasleek lortutako oinarrizko gaitasunen diagnostiko-ebaluazioa egingo dute ikastetxe guz-

tiek. Ebaluazio hori hezkuntza-administrazioen eskumena izango da eta prestakuntzazkoa eta orientatzailea izango da ikastetxeentzat, eta informaziozkoa familientzat eta hezkuntza \_komunitate osoarentzat. Ebaluazio horren erreferentziako esparrua Lege honen 144.1 artikuluan ezarritako diagnostiko-ebaluazio orokorrak izango dira.

Antzeko terminoak ageri dira 29. artikuluan (DBHko datuak eskatzeari dagokionean): "Derrigorrezko bigarren hezkuntzako bigarren maila amaitzean, ikasleek lortutako oinarrizko gaitasunen diagnostiko-ebaluazioa egingo dute ikastetxe guztiek. Ebaluazio hori hezkuntza-administrazioen eskumena izango da eta prestakuntzazkoa eta orientatzailea izango da ikastetxeentzat, eta informaziozkoa familientzat eta hezkuntza \_komunitate osoarentzat. Ebaluazio horren erreferentziako esparrua Lege honen 144.1 artikuluan ezarritako diagnostiko-ebaluazio orokorrak izango dira.

Bi artikuluko horietatik, honako irizpideak ondoriozta daitezke:

Haien emaitzen hartzaileen artean, bi hartzaile mota bereizten direla: batetik, ikastetxeak, eta, bestetik, familiak eta hezkuntza komunitate osoa; erabilerari hori ikastetxearen testuinguruari dagokionez erabiltzen da.

Hartzaile horiei begira ere, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak, gainera, babes berezi bat ezartzen zuela datuak zabaltzeari dagokionez, ez zitezten erabil ikastetxetako emaitzak konparatzeko –hau da, rankingak egiteko–, baizik eta ebaluazioak ezarri ziren helburuetarako, betiere ikastetxe bakoitzari dagokionez eta ez ikastetxeen arteko konparaketari dagokionez.

Hezkuntzari buruzko Lege Organikoko 144.3 artikulua, LOMCEren aurreko bertsioaren arabera, zeren eta hori baita aplikatu behar dena LOMCEren bidezko erreformaren aurretik egindako ebaluazioen emaitzak zabaltzeko, honakoa zioen: "Hezkuntza-administrazioek, halaber, ikastetxeek egiten dituzten diagnostiko\_ebaluazio horien emaitzak eta ebaluazio horien ondoriozko jardun-planak hezkuntza-komunitateari jakinarazteko modua arautu beharko dute. Ebaluazio horien emaitzak ezin izango dira erabili ikastetxeen sailkapenak egiteko."

Hori dela eta, Departamentuak, ebaluazio diagnostikoei buruzko bere esparru teorikoan,

ezartzen du ikastetxe bakoitzean emaitzek barneizaera izanen dutela eta hezkuntza-ikuspegia hartuko dutela –eta ez sumatiboa edo finala–, eta ez dutela, ezta ere, eragin akademikorik izanen. Horrek adierazten du nolako partzialtasuna duten emaitza puntual horiek, zeinak orokorrean interpretatu behar baitira, irakasleek daukaten informazio akademiko osoarekin. Horrenbestez, ez dute behar adina entitate teknikorik egintza administratiboak oinarritzeko (ikasleengan eraginak izanen dituzten kalifikazioak), ez eta orientazioa ematez besteko inongo xederik ere.

Bestalde, emaitza horiek hezkuntza komunitateari jakitera emateko moduari dagokionez, Nafarroako Gobernuak “Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen Erregelamendu Organikoan” (1997ko martxoaren 14ko 32. NAO), honakoa ezartzen zuen argi eta garbi: Eskola Kontseiluaren eskumenen artean dago “zentroko eskola-emaitzak orokorrean zer bilakaera izan duen aztertu eta baloratzea” (8. artikuluko ñ) letra) eta, halaber, “aztertu eta baloratzea zentroaren funtzionamendu orokorra, bai eta hezkuntza administrazioak zentroaz egiten duen ebaluazioaren emaitzak ere, edo zentroaren funtzionamenduari buruzko beste edozein txosten” (8. artikuluko o) letra). Antzeko terminoak jasotzen dira Bigarren Hezkuntzako Institutuen Erregelamendu Organikoan (1997ko martxoaren 14ko 32. NAO), non berresten baita ikastetxeak direla ebaluazio horiek egiten dituztenak eta haiek beren jarduketa planekin lotu behar dituztela.

Hezkuntza Kalitatea Hobetzeari buruzko Lege Organikoak (LOMCE) berak (2013ko abenduaren 10ean onetsi zen LOE aldatzeko xedez, eta etorkizuneko ebaluazioetan aplikatuko da) hezkuntza administrazioek egiten dituzten ebaluazioen emaitzei dagokienez beste ikuspegi bat planteatzen duen arren, mantentzen du zabalpen hori soilik egin ahalko dela aurrez faktore batzuk kontuan hartuz gero eta adierazle komun batzuen arabera (Espainiako Gobernuak ez ditu oraindik finkatu). Betiere, betiere emaitza horiek zabaldu eta erabili ahalko dira oinarri batzuen arabera, baina Espainiako Gobernuak oraindik ere ez ditu oinarri horiek finkatu. Hauxe da LOMCEren 147. artikuluko 2. idatz-zatiak ezartzen duena: “Hezkuntza-administrazioek egiten dituzten ebaluazioen emaitzak hezkuntza-komunitateari emanen zaizkio ezagutzera Espainiako ikastetxe guztientzat komunak izanen diren adierazle batzuen arabera, datu

pertsonalak identifikatu gabe eta testuinguruaren faktore sozioekonomikoak eta soziokulturalak aurrez aintzat hartuta. Gobernuak oinarri batzuk ezarriko ditu ebaluazioen emaitzak erabiltzeko eta haien sarbide publikorako, aurrez autonomia erki-degoei kontsulta eginda. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak, bestalde, Hezkuntza Ebaluaziorako Institutuak hezkuntza \_administrazioekin lankidetzan egindako ebaluazioen interes orokorreko ondorioak argitaratuko ditu aldizka, eta Adierazleen Estatuko Sistemak aldizka ematen duen informazioa emango du ezagutzera. Zehazki, ikastetxeen emaitzak argitaratuko dira Espainiako ikastetxe guztientzat komunak izanen diren hezkuntza-adierazle batzuen bitartez, izaera pertsonaleko datuak identifikatu gabe”.

Aurreko guztia dela eta, ez 21. artikulua, ez 29.a, ez 144.a, ez 147.a ez daudenez salbuetsita Hezkuntzari buruzko Lege Organikoko azken xedapenetako bosgarrenean oinarritzko izaeratik,

JO DUGU:

Ebaluazio diagnostikoen emaitzei buruzko informazioa ematerakoan, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak aipatutako eta azaldutako artikuluetan ezarritako mugak errespetatu behar direla, eta, ezinezkoa denez jakin oraingoz haietatik zein zabaldu ahalko diren LOMCEren bidez onetsitako oinarritzko arau horren erreformaren ondorengo erregulazioaren babesean, zeren eta zabalpena egin ahal izateko terminoak erregulatuko duen arau-garapen guztia falta baita, erregulazio horren zain egonen gara datu zehatzagoak emateko, betiere datuak zabaltzen ditugunean termino horiek bete ditzagun.

Nolanahi ere, bitartean, parlamentariak eskura dute Hezkuntza Ikuskaritzak Eskola Kontseiluari igorritako informazio orokorra, Nafarroako Hezkuntza Sistemaren txostenean sar dadin, hain zuzen ere urtero, hezkuntzaren arloko partaidetza sozialeko organo goren horrek egiten duen txostenean. Txosten hori Eskola Kontseiluaren webgunean ageri da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean 2014ko apirilaren 3an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado



Hori dela eta, Departamentuak, ebaluazio diagnostikoei buruzko bere esparru teorikoan, ezartzen du ikastetxe bakoitzean emaitzek barneizaera izanen dutela eta hezkuntza-ikuspegia hartuko dutela –eta ez sumatiboa edo finala–, eta ez dutela, ezta ere, eragin akademikorik izanen. Horrek adierazten du nolako partzialtasuna duten emaitza puntual horiek, zeinak orokorrean interpretatu behar baitira, irakasleek daukaten informazio akademiko osoarekin. Horrenbestez, ez dute behar adina entitate teknikorik egintza administratiboak oinarritzeko (ikasleengan eraginak izanen dituzten kalifikazioak), ez eta orientazioa emateaz besteko inongo xederik ere.

Bestalde, emaitza horiek hezkuntza komunitateari jakitera emateko moduari dagokionez, Nafarroako Gobernuak “Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen Erregelamendu Organikoan” (1997ko martxoaren 14ko 32. NAO), honakoa ezartzen zuen argi eta garbi: Eskola Kontseiluaren eskumenen artean dago “zentroko eskola-emaitzak orokorrean zer bilakaera izan duen aztertu eta baloratzea” (8. artikuluko ñ) letra) eta, halaber, “aztertu eta baloratzea zentroaren funtzionamendu orokorra, bai eta hezkuntza administrazioak zentroaz egiten duen ebaluazioaren emaitzak ere, edo zentroaren funtzionamenduari buruzko beste edozein txosten” (8. artikuluko o) letra). Antzeko terminoak jasotzen dira Bigarren Hezkuntzako Institutuen Erregelamendu Organikoan (1997ko martxoaren 14ko 32. NAO), non berresten baita ikastetxeak direla ebaluazio horiek egiten dituztenak eta haien beren jarduketa planekin lotu behar dituztela.

Hezkuntza Kalitatea Hobetzeari buruzko Lege Organikoak (LOMCE) berak (2013ko abenduaren 10ean onetsi zen LOE aldatzeko xedez, eta etorkizuneko ebaluazioetan aplikatuko da) hezkuntza administrazioek egiten dituzten ebaluazioen emaitzei dagokionez beste ikuspegi bat planteatzen duen arren, mantentzen du zabalpen hori soilik egin ahal dela aurrez faktore batzuk kontuan hartuz gero eta adierazle komun batzuen arabera (Espainiako Gobernuak ez ditu oraindik finkatu). Betiere, betiere emaitza horiek zabaldu eta erabili ahalgo dira oinarri batzuen arabera, baina Espainiako Gobernuak oraindik ere ez ditu oinarri horiek finkatu. Hauxe da LOMCEren 147. artikuluko 2. idatz-zatiak ezartzen duena: “Hezkuntza-administrazioek egiten dituzten ebaluazioen emaitzak hezkuntza-komunitateari emanen zaizkio ezagutzera Espainiako ikastetxe guztientzat komu-

nak izanen diren adierazle batzuen arabera, datu pertsonalak identifikatu gabe eta testuinguruaren faktore sozioekonomikoak eta soziokulturalak aurrez aintzat hartuta. Gobernuak oinarri batzuk ezarriko ditu ebaluazioen emaitzak erabiltzeko eta haien sarbide publikorako, aurrez autonomia erki-degoei kontsulta eginda. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak, bestalde, Hezkuntza Ebaluaziorako Institutuak hezkuntza \_administrazioekin lankidetzan egindako ebaluazioen interes orokorreko ondorioak argitaratuko ditu aldizka, eta Adierazlearen Estatuko Sistemak aldizka ematen duen informazioa emango du ezagutzera. Zehazki, ikastetxeen emaitzak argitaratuko dira Espainiako ikastetxe guztientzat komunak izanen diren hezkuntza-adierazle batzuen bitartez, izaera pertsonaleko datuak identifikatu gabe.”

Aurreko guztia dela eta, ez 21. artikulua, ez 29.a, ez 144.a, ez 147.a ez daudenez salbuetsita Hezkuntzari buruzko Lege Organikoko azken xedapenetako bosgarrenean oinarritzko izaeratik,

JO DUGU:

Ebaluazio diagnostikoen emaitzei buruzko informazioa ematerakoan, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak aipatutako eta azaldutako artikuluetan ezarritako mugak errespetatu behar direla, eta, ezinezkoa denez jakin oraingoz haietatik zein zabaldu ahalgo diren LOMCEren bidez onetsitako oinarritzko arau horren erreformaren ondorengo erregulazioaren babesean, zeren eta zabalpena egin ahal izateko terminoak erregulatuko duen arau-garapen guztia falta baita, erregulazio horren zain egonen gara datu zehatzagoak emateko, betiere datuak zabalitzen ditugunean termino horiek bete ditzagun.

Nolanahi ere, bitartean, parlamentariak eskura dute Hezkuntza Ikuskaritzak Eskola Kontseiluari igorritako informazio orokorra, Nafarroako Hezkuntza Sistemaren txostenean sar dadin, hain zuzen ere urtero, hezkuntzaren arloko partaidetza sozialeko organo goren horrek egiten duen txostenean. Txosten hori Eskola Kontseiluaren webgunean ageri da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean 2014ko apirilaren 3an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

## **Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako 2014-2015 ikasturterako aurrematrikulazio kanpainari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Amaya Zarranz Errea andreak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako 2014-2015 ikasturterako aurrematrikulazio kanpainari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko martxoaren 14ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrari atxikitako foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak idatziz erantzuteko galdera

egin du (8-14/PES-00056). Hauxe da Nafarroako Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

Sare publikoan 40 ikasleko eta sare publikoan 141 ikasleko soberakinak egon dira, lehenengo aukeran onartzeko prozesua eta gero.

Horietatik bigarren aukeran 80 eta 15 onartu ziren, hurrenez hurren, eta hirugarrenean, berriz, 31 eta 4. Horren ondotik, 51 ikasle geratu dira zain, eta haien familiei gutun bat igorri zaie azaltzeko zein diren ikasle-postu bete gabeak dituzten ikastetxeak, eta aukera emanen zaie hurrenkeran eta mugarik gabe nahiago dituztenak hautatzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko martxoan 3an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

